

I

–Oso pozik gaude zure lanarekin.

Aurrean ditut enpresako hiru izen garrantzitsuenak esku artean paperak dituztela, urduritasuna adierazten duten lasaitasun plantak eginez.

–Azkeneko proiektuan ikusi dugu enpresa honetan bi-latzen duguna, autonomia, zuhurtziaz jokatzeari, lana aurrera ateratzeko ahalmena, erabaki estrategikoak hartzeko gaitasuna, proiektu-arduradunei karga kentzeko prestasuna...

Loreak dirudite eta ez kaleratze aurreko hizketaldi adeitsua; beraz, arduraz jokatzuz, galdetzeraz ausartu naiz:

–Bezeroak pozik daude?

–Bezeroak eta gu, Jezabel –esan dit egitura hierarkizatu-tuan bigarren postua duen gizonak.

Uste nuen bilera hau, formalki, proiektuaren balorazio-bilera besterik ez zela, eta urduritzen hasia naiz, nire eta haien artean dagoen mahaia sortzen duen banaketaz ohartuta. Ez baita “ekipoko” balorazio bat, baizik eta “gu” eta “zu” banatzen dituen hizketaldi formalismoz josia.

Hala jarraitu dute galderekin, ea nola ikusten dudan neure burua enpresan, gustura ote nagoen, zerbait botatzen ote dudan faltan... Eta ni, heziera oneko umearen gisan, baietz, gustura nagoela, enpresa ona dela, taldean lan egitea gustuko dudala eta halakoak esanez.

Aurrekariak alde batera utzita, Mercedesek, enpresa-burua denak, bota du azkenik galdera:

–Jakin nahi genuke, azken lanetan ikusitakoaren ostean, zera, interesik izango zenukeen, bada, proiektu zuzendari izateko. Badakizu, zure ekipoa osatu eta bezeroekin lan egin, zuzenean erabakiak kontsultatu beharrik ez... Soldata ere horren araberakoa litzateke, noski...

Litekeena da gaur egun inor gutxik bistaratzea halako hizketaldi bat, inor gutxik pentsatzea lan finkoaren antzekoena den kontratu bat izanda, horrek aurrera edo gora egin dezakeenik, lana igoerarekin lotzea, soldata igoerak existitzen direla pentsatzea. Beraz, erabakia sinplea da: bai. Zer bestela? Nola egin uko egun ezinezkoena dirudien panorama eskaintzen dizun egoera bati? Ezin da birritan pentsatu. Zortekoa zara. Pribilegiatu bat. Beraz, bai, halako aukeren aurrean aurrera egin besterik ez dugu. Pentsamendu hauek guztiak mikrosegundo batean prozesatu eta ozenki esaten duzu baietz, ohorea dela inklusio, eta horren ondoren etorri dira irribarre urduriak, eta bostekoak, bi musu, eta *zorionak*, eta *ongi etorri barkura*, eta *irrikan nago hastekoak*.

Pretentsioz jositako egoera eta bilera izan dira ziurrenik, “enpresa” deitzen dioten honek ez baititu 18 langile besterik, eta bezeroak, Euskadin gertatzen den bezala, ez baitira besterik, diru-laguntzen bitartez gure zerbitzuak kontratatzen dituztenak baino, diru-laguntzak ematen dituzten

horien anai-arreba txikiagoak alegia. Baina azken finean “erabakiak hartzeko gaitasuna”, “zuhurtzia”, “ardura” eta halakoek bete didate paparra. “Oso pozik gaude”. Agian ni ez hainbeste, ez baitut korporatibismo apurrik sentitzen, eta, krisiak krisi, are gutxiago lan bat izategatik pribilegio-
ren bat dudarik. Baina hori dio egoerak, ez duela hainbeste inporta nik zer sentitzen dudan, baizik ezin zaiola halako zerbaiti muzin egin, eta, beraz, lanpostuaren aukeretan baino gehiago, “lana aurrera ateratzeko erabaki estrate-
gikoak hartzen dakiten horietakotzat naukate” horretan jarri dut enfasia, errealizatuta sentitze horretan jarri dut lupa, eta, hori hala dela lehendik ere jakin arren, besteen ahotan entzuteak sarri asetzen du errekonozimendu gose txiki baina iraunkorra.

Ordenagailura itzuli naiz, lankideen aurrean lasaitasuna adierazi nahian, begiradak nabari ditudan arren, neoizko argiz begiratzen didaten galdera ikur urduriak. Atzetik etorri da “gure jefa”. Mercedes ez delako nagusia, *jefa* baizik, hitz horrek bere baitan biltzen duen bromazko tonuarekin, gizonak tabernan “gure etxean andreak agintzen du” esaten dutenean sumatzen denaren antzekoa. Baina jefa da, gure jefa, eta bulegoan hitz egiten hasi aurretik denak isilaraztea lortzen du.

—Bueno, batzuek jakingo duzue, baina tira, hemendik aurrera Jezabel proiektu arduradun gisa arituko da, baita administrazio batzordean ere. Osteguneko bileran zehaztuko ditugu lan-taldea eta egitekoak, baina gaur, zorionak, Jeza, merezi duzu.

Ez da pelikuletako txalo zaparradarik etorri taldetik, entusiasmo gutxiko “zorionak”, “ei, ze ondo”, eta halako

batzuen aurrean irribarre txikia egin behar izan dut, apaltasun apur bat antzetzuz, baina jakinez haiek guztiek baino gehiago merezi dudala. Aspaldian nabilela fin, eta enpresari ez ezik, lankide bati baino gehiagori garbitu diodala atzealde hanka-sartze batekin dena kakaztu ondoren. Amorrua emango dio bati baino gehiagori, hori ere badakit. Izan ere, ongi dakite niri ez zaizkidala gehiegi axola ez enpresa, ez gora egitea, ez nire bizitza lanaren bitartez baloratzea ere, baina aldi berean badakite, haiek saiatzen direnaren laurdena eginda, haiek baino bi aldiz hobe naizela. Ez ni bereziki brillantea naizelako, baizik eta, batek daki zergatik, eskolan tuntunak izan arren izugarri esfortzatzeagatik zure nota bertsu edo hobeak lortzen zituzten horietakoz beteta dagoelako nire enpresa, eta, haien tuntuntasun infinituan bada ere, badakitelako zu haiek baino bizkorragoa zarela.

Dei pare bat egin ditut segidan, lanekoak, aurrekontu bi berretsiz eta azpi-kontratatu dugun komunikazio enpresari (diru-laguntzen diru-laguntzez bizi da hau ere) haiek egindako planak gabeziak dituela han eta hemen esateko.

Pentsatu dut orain ni neu ere pixka bat *jefa* izango naizela eta erabaki beharko dudala nolako jefa izan nahi dudan, alegia, erraza zaidala kontratu azpiko enpresakoei autoritate puntu batekin aritzea, azken finean ordaindu egiten diegu eta guretzat ari dira lanean, baina ekipoko lanetan lausoagoak dira hierarkiak; ardura bai, nire gain izango dut, baina itxurakerietan gailentzen den filosofia talde-lanarena da, mahai biribiletan egiten ditugu bilerak eta denok beharrezkoak garela errepikatzen dugu ozenki. Halakoetan, nagusi eta lankide izatea tokatzen da, eta denok dakigu nagusi enrollatu bat semeorde adoleszentearekin maja izan nahi

duen amaorde baten tankerakoa dela, inork errespetatu ez, patetismoan murgildu eta azken puntuan adarra jotzen diotena. Aldi berean nagusi nazi bat izatea ere ez da aukera posible bat, “talde-lana” oinarri duen enpresa izanik, joko arauak lehertzea izango litzatekeelako.

Idea honekin haserretuta, bankura noala esan dut erdi-ozen bulegoan, eta txaketa eta gainontzekoak hartuta irten naiz, inoren baieztapenik itxaron gabe. Dena delako jefa bat bezala.

Nomina loditu didate goiz honetan, eta horrek nire planak hobetu ditu bat-batean. Autoa hartu dut eta, zein ordu den ikusita, hiritik ateratzea erabaki dut, inguratuta lehenago helduko naizelako bankura. Ez dut ulertzen nola sartzen den jendea oraindik zentrorra autoz. Ni ez ordea, orain bai baitakit “erabaki estrategikoak hartzeko” gai diren horietako bat naizela.

Onartu diot neure buruari banketxeek urduri jartzen nautela. Aldez aurretik dakigulako denok, gure dirua ez ezik, arimaren puskatxo bat ere lapurtzen digutela sinatzen dugun paper bakoitzeko, jende honekin ezin zarela fio, lapurtu egingo dizutela; baina tira, egitera noana da egin nezakeen gauzarik zentzuzkoena.

DUELA bi aste hasi zen dena, duela bi aste aukeratu bainuen osabarentzako pinuzko kaxa egoera ezin arraroagoan, eta ondoren erraustu. Berak eskatu bezala. Mendiarena zaila goa izan zen, inoiz ez bainintzen berarekin mendira joan, baina hala nahi omen zuen, “mendian” zabaltzea bere errautsak, generikoki. Lagun batek esan zidan Txindoki egokia

zela, “edonork igotzeko modukoa”. Kaka zaharra! Izerditan iritsi ginen tontor ingurura ama eta biok, eta azken agurra ere umore txarrez egin. Ulertu nuen osabarena azken unera arte izorratzen jarraitzeko apeta besterik ez zela, eta hori ere lortu zuen.

Ondoren iritsi ziren paperak eta paperak, sinatzera-koan norberari arima zatia ez ezik poltsikoa zulatzen diotenak, eta begiratu gabe azkar sinatzen diren horietakoak. Buka dadin. Lehenbailehen. Batek ez dakielako zein unetan egokitu zitzaion eginkizun hori, noiz erabaki ote zuen, amaren laguntzarekin, ohiko prestutasun femenino hori konplitzea, noiz bilakatu ote nintzen familiako hainbat konturen arduradun.

Notario bati banku-gizon bati baino sinpatia urriagoa zaio oro har, baina badakigu horiek gobernatzen dutela kontua, eta azken kontuak ixteko zita egin genuen. Espero nituen xoxak, baina beldur handiagoz zorrak. Osaba bizi-rik zen artean ez baitzizaion ezer falta izan (edo hori esaten zuen behintzat), ez zen xuhurkerietan ibiltzen, dirua “erre” egin zuen, eta esan behar dut horrek miresmen apur bat ere eragiten zidala. Azken urte luzeetan inork ez genuen jakin ongi nondik atera zuen dirua, nola iraun zion hainbeste denboran, baina, dirudienez, ondo lotuak zituen gauzak.

Notarioak sobre bana eman zigun haren alabari eta niri, ilobari, eta herentzia delakoari ekin genion. Donostiako azken etxea dirudienez eresia zuen eta ez alokairuan, eta alabarentzat zen. Ez nion hari dirdirarik sumatu begietan, “ados” bat besterik ez. “Normala” pentsatu nuen.

Bizi-asegurua, hain izen perbertsoa daukan aseguru-ua, hau da, heriotza-kontratua litzatekeena, omen zen niretzat.

Ez nuen osaba zaharra halako tontakerietan hilero dirua sartzen ikusten (eta ondoren niri uzten), baina bai, bizi-aseguru bat zuen kabroiak! Hogeita hamabi urtez hilero-hilero ordaindua. Izan ere, azken urteetan iloba kutuna nintzela banekien, kutuna baino gehiago inguratzen zitzaion bakarra, baina zirudienez txikitatik izan ninduen begiko, eta horra hori berresten zuen zifra.

Zergak kenduta, 96.832 euro.

Amari, haren arrebari alegia, ez zion ezer ere utzi, eta horrek amorrarazi egin ninduen; izan ere, azken urteetan nirekin batera familiatik harreman minimoa izan zuen bakarra bera izan baitzen.

Baina tira, horrek narama bankura. Edo, hobeto esanda, 96.832 euro zikinek naramate arima salduko dudana bankura bigarrenez. Zer egiten du batek, inola espero ez zituen baina ezinbestean eta bat-batean norberarenak diren 96.832 euroekin? Zer egin, bereziki ezagutu ez, baina familian gorrotatua izan den horri kasu egin dion senitarteko bakarra izateagatik egokitutako kopuru horrekin?

Notarioareneko atea itxi bezain pronto, galdera horrek kolpatzen ninduela artean, bankura jo nuen, ez bat eta ez bi.

“Egin dezakezun inbertsio onena etxe bat erostea da”.

Oroitzen dut nire barre algara. “Oraindik horrek funtzionatzen dizue ala? Sinesten dizue inork?” bota nion gorbatadun tipoari. Horren atzetik, haren lana betez, aurrezki planak, burtsa, inbertsio ez nolanahikoak... bota zizkidan, eta azkenean, etxe bat erostearen horretara itzuli ginen.

Gau horretan etxeak salgai dauden webgune guztiak arakatu nituen, eta arratsaldeak etxeak begiratzen igaro

astebetez. Bi gela, bainugela, sukalde-egongela diafanoa, argia eta 60 metro karratu. Hori izan zen azken aukera. 145.000 euro.

Eta gaur 96.832ri falta zaizkion 48.168 euroren kreditua sinatzera noa, hiria zeharkatzea saihestuz, egitera noa atzeratu nahian, agian hiria eta erabakia aldi berean inguratuz.

Ez diot oraindik inori azaldu nola “egin nezakeen inbertsio onena, etxea erostea zen”.